



BAPOREA
HAUR LITERATURAKO SARIA

FUNDACIÓN SM

2008KO OINARRIAK

BAPOREA

HAUR LITERATURAKO SARIA

2008KO OINARRIAK

SM FUNDAZIOAK 2008ko Baporea sarirako deialdia egin du, haurrentzako literatura sortzea sustatzeko; literatura horrek, batetik, irakurtzeko zaletasuna bultzatu behar du, eta, bestetik, literaturaren kalitatea ahaztu gabe, giza, gizarte, kultura edo erlijio balio batzuk transmititu behar ditu, mundu duina eraikitzen laguntzeko.

Hona hemen sariketa honetako OINARRIAK:

1. **Nahi duten idazle guztiek** dute sariketan parte hartzeko aukera, **nazioa edo jatorria edozein izanda ere**. Lanek honako ezaugarri hauek bete behar dituzte: nobelaren kontzeptu orokorra betetzea; **jatorriz euskaraz idatzita** egotea; originalak eta argitaragabeak izatea, eta beste sariketaren batean saririk jaso gabeak; eta idazlea deialdia egin aurretik hil ez izana. Sariketarik kanpo geratuko dira, halaber, aurreko deialdian saria jaso duen idazlearen lanak badira. SM FUNDAZIOKO edo GRUPO SM taldeko langileek ezin izango dute sariketan parte hartu.
2. Lanek, **gutxienez, 35 orrialde** izan behar dituzte, DIN A4 neurrikoak (210 x 297 mm) eta alde batetik soilik mekanografiatuak, lerro artean tarte bikoitza utzita. Hiru original bidali behar dira —inprimatuak, koadernatuak edo josiak—, eta, ahal izanez gero, ordenagailuko diskete bat ere bai. Originalak ezizenez izenpetu behar dira, eta gutun-azal bat erantsi behar zaie, egilearen izen-deiturak, helbidea eta telefono-zenbakia bertan direla. Bestetik, egileak idatziz aitortu behar du bidalitako lana originala eta argitaragabea dela, ez duela beste saririk jaso, ez dagoela beste sariketaren baten epaiaren zain, eta eskubideak ez dizkiola beste inongo argitaletxeri agindu.
3. Originalak honako helbide honetara bidaliko dira:

Ediciones SM

C/ Impresores, 2
Urbanización Prado del Espino
28660 Boadilla del Monte
Madrid (España)

Gutun-azalean honako hau adierazi behar da, argi eta garbi: **Para el Premio Baporea.**

Epia jendaurrean jakinarazi ostean, saririk gabeko originalak eta horien kopiak desegin egingo dira, eta horren aurka ezin izango da inolako erreklamaziorik egin. Erakunde antolatzaileak ez ditu bere gain hartzen originalen balizko galtze edo hondatzeak, eta atzerapenak edota postetxearen edo hirugarrenen ondorioz lanak sariketara bidaltzeko egon daitezkeen bestelako arazoak ere ez.

4. **Originalak jasotzeko epea 2008ko apirilaren 15ean amaituko da.** Data horretara arte jasotako originalak nahiz lehenagoko zigilu-marka dutenak onartuko dira. Sariketan parte hartzeko, egileek oinarri hauek guztiak onartu behar dituzte, eta, behin lana aurkeztu ondoren, ezin izango dute erretiratu.
5. SM FUNDAZIOAK izendatuko du epaimahaia eta parte-hartzaileak, batetik, literaturan, pedagogian eta hezkuntzan espezializatutako zenbait pertsona, eta, bestetik, erakunde antolatzailearen ordezkari batzuk izango dira. Epaimahaiaren osaera ez da jendaurrean azalduko, saria emango den egunera arte.

6. Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da.
7. Epaimahaiak eskubidea izango du bere eskumeneko edozein alorretan ebazteko, baldin eta oinarri hauetan zehatz ezarri ez bada.
8. Sari bakarra eta banaezina emango da, **10.000 eurokoa**. Saritutako lana, gainera, argitaratu egingo du EDICIONES SMk. Sariaren zenbatekoa argitaratze-kontratuan ezarriko diren egile-eskubideen arabera zehaztuko da. Oinarri hauetan eta Jabetza Intelektualeko Legean ezarritakoaren arabera izenpetuko da kontratu hori.
9. Nobela irabazlearen egileak EDICIONES SMren esku utziko du nobela ustiatzeko eskubide eskusiboa, modalitate guztietan eta mundu osoarentzat; eta indarreko legeek ezarritako gehieneko epean. Orobat, irabazleak konpromisoa hartuko du lana aurkezteko eta sustatzeko argitaletxeak egokitzen dituen ekitaldi guztietan azaldu eta parte hartzeko.
10. EDICIONES SMk lehentasunezko eskubidea izango du sariketara aurkeztutako beste nobelak argitaratzeko, saria irabazi ez izanagatik ere gogoko baditu; horretarako, dagokion egilearekin kontratua izenpetuko du, bilduma honetarako ohikoak diren baldintzetan.

Norberaren Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoari jarraiki, jakinarazi nahi dizugu parte-hartzaileen datuak fitxategi automatizatu batean jar daitezkeela. SANTA MARIA FUNDAZIOA-EDICIONES SM arduratzen da fitxategi horretaz, eta datuei tratamendu automatizatu ematea baimentzen du informazioa, sustapena eta estatistikak emateko denean. Datu horiek ikusi, zuzendu, ezeztatu eta haien aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu helbide honetara gutuna eta NANaren fotokopia bidaliz: FUNDACIÓN SANTA MARÍA - EDICIONES SM, C/ Impresores 15, Urb. Prado del Espino. 28660 Boadilla del Monte, Madrid. Zuk ematen dizkiguzun datuak gure Taldeko enpresei (URL honetan daude: <http://www.grupo-sm.com>) utzi diezazkiokegu helburu komertzialetarako erabil ditzaten, bitarteko elektronikoetako publizitatea barne; hori egiterik ez baduzu nahi, arren, esaniezaguzu.

ARGIBIDEAK:

Fundación SM



C/ General Moscardó, 3-2º
28020 Madrid
Tel.: 34 91535 96 00
Fax: 34 91535 96 01
fsm@fundacion-sm.com
www.fundacion-sm.com

Grupo SM



C/ Impresores, 2
Urbanización Prado del Espino
28660 Boadilla del Monte
Madrid
Tel.: 34 91 422 6699 / 6209
Fax: 34 91 422 6120
comunicacion@grupo-sm.com
www.grupo-sm.com